

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KRIPANGO UDALA

Jendaurrean jartzea udalaren bideak eta landa bideak mantentzeko, hobetzeko eta kontserbatzeko 2021eko ekitaldiko erroldaren eta haren jakinarazpen kolektiboaren ordaintzeko epearen onespena

Arabako foru sektore publikoaren tasa eta prezio publikoei buruzko ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutakoari jarraituz, jendaurrean jartzen dira honako hauek: errolda eta udalaren bideak eta landa bideak mantentzeko, hobetzeko eta kontserbatzeko tasa ordaindu behar dutenen 2021eko erroldaren zerrenda, zeina Alkatetzaren ebazpen bidez onetsi baitzen, 2021eko urriaren 5ean.

Aipatutako errolda jendaurrean jartzen da, udaletxeko idazkaritzan, hamabost egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko, eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak eta alegazioak aurkezteko. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsizat joko dira.

Erroldak eta haiei erantsitako likidazioak onesten dituen egintzaren aurka berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio hura ebazteko eskumena duen organoari, hilabeteko epean, horiek jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

Kobratzeko aldia. Borondatezko aldiko dirubilketa epea bi hilabetekoa izango da; hain zuzen ere, 2021eko urriaren 30etik 2021eko abenduaren 30era. Borondatezko dirubilketaren epea amaitutakoan, ordaindu gabeko kuotetarako betearazte aldia hasiko da automatikoki, eta berandutze interesak eta dagozkien errekarquak eskatuko dira, Zergei buruzko 6/2005 Foru Arau Orokorren 26. eta 28. artikuluetan xedatutako moduan, bai eta, hala badagokio, premiamendu bideko kostuak ere. Ordaintetarik banketxeetan bidez helbideratuta dituzten zergapekoek ez dute inongo izapiderik egin beharko eta 2021eko urriaren 30ean kobratuko zaie.

Helbideratu gabeko ordaintetarako, zergadunei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria, jendea hartzeko orduetan, udalak Kutxabanken edo Euskadiko Kutxan duen konturen batean ordain dezaten, dirutan edo transferentzia bidez. Zergadunei ohartarazten zaie komenigarria dela beren zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea.

Bestalde, nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak, hala hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak, Kripango Udalean izapidetu beharko dira.

Epe hori igarota, premiamendu bideari ekingo zaio, eta ordaindu gabeko kuotei Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek xedatutako errekarqua gehituko zaie.

Guztiek jakin dezaten eta ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Kripan, 2021eko urriaren 5a

Alkatea

JOSEBA FERNÁNDEZ CALLEJA